



musuak

unitate didaktikoa



HEZKIDETZA HOMO/LESBOFOBIAREN AURKA.



Badira joerak, ohiturak eta bizitza ulertzeko moduak –baita sexualitatea ere- haurtzaroan ikasten direnak. Kontuan hartzen badugu familiaren ondoren eskola dela sozializatzeko gune garrantzitsuena, eskolak hainbat eta hainbat kasutan bizitzaren oinarriko baloreak transmititzeko ardura hartzen du. Hori dela eta, eskolan bermatu behar ditugu gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, eta sexuagatiko

diskriminaziorik gabeko gizartea lortzearen beharra. **Hezkidetza da bidea**, eta honelaxe eraikitzen ahal dugu **bisibilitate, transbersalitate eta inklusioan** oinarritutako hezkuntza.



Ikasleek hezkidetzaren hiru oinarri hauek ongi ezagutu eta baloratu behar dituzte, eta hauek talde guztientzat balio dutela jakin. Gure helburua ez da "tolerantzia" lantzea, baizik eta desberdintasuna jendarteari datxekion berezko ezaugarria dela. Homosexual, lesbiana, heterosexual, bisexual eta transexualentzat gure gizartean dagoen aniztasunaren barruko oso kolektibo garrantzitsuak dira eta horretxegatik talde hauek guztiek inguru hurbil zein publikoan agertzearen beharra dute, bisibilazioa ezinbestekoa da. Ezin gune askerik aipatu talde hauetakoren bat bere joera sexuala ezkutatu beharren badago, ahoz, psikologikoki edo fisikoki erasotuaren beldur bada.

Berdintasunean oinarritutako jendartean bidean aurrera egin ahal izateko ezinbestekoa izan da euren sentimenduak publikoki agertu duten pertsonen jarrera tinkoa. Bazterkeriaren kontrako legeek ez dute zentzurik diskriminaturik diren pertsonak beldur badira.

Inklusio sozialean lagundu behar ditugu ikasleak. Bizitzaren garai honetan taldea beren mundua den, erreferentea, segurtasun iturria; lan egin dezagun beldur gunea izan ez dadin.

Unitate Didaktiko honen helburua ikasleek sexuagatiko diskriminazioaz hausnartzea, eta ahal duen neurrian aurreikusteko, bisibilizatzeko eta homo/lesbofobia kasuen kontra egiteko, jazarpena edo diskriminazioa pairatzen duten pertsonetako empatia landuz.

2012ko maiatza



ABIAPUNTUA

Unitate hau ikastetxean homofobikoa den indarkeria egoeraren bat sortzen denean landu daiteke. Ekainaren 28ren inguruan ere bai, Gay, Lesbiana, Transexual eta Bisexualen (LGTB) Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela aprobetxatuz.

HELBURU OROKORRA

Pertsonen arteko harremanen aniztasunaz hausnartzea, egoera desberdinak aztertuz, orientazio sexualagatik pairatzen diren diskriminazioaz eta giza presioaz ohartzeko.

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Pertsonen arteko harremanen aniztasunaz hausnartzea, orientazio sexual desberdinak ezagutuz, diskriminazioa ekiditeko.
- Inguru hurbilean sexu bereko bikoteen aurrean izaten diren erantzunei buruz hausnartzea, hauek aztertuz, diskriminatzaileak diren egoerak identifikatzeko eta baztertzeke.
- Homofobikoak diren egoerak identifikatzea, agerian utziz, horien kontra borrokatzeke.
- Ipuinetan eskaintzen zaizkigun ereduez hausnartzea, estereotipoak baztertuz, berdintasunezko harremanak sortzeke.
- Eraso eta indarkeria egoeretatik libre bizitzeko jarrera eta trebetasunak garatzea aipaturiko egoera horiek ez jasateke.

OINARRIZKO GAITASUNAK

- Jendarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.
- Informazioa tratatzeko gaitasuna.

EDUKIAK.

- Desberdintasunen errespetua, norbere eta bestearen balorazioa.
- Informazioa bilatzeko, sailkatzeke, aztertzeke eta adierazteke trebeziaren garapena.
- Elkar lanerako eta lankidetzarako jarrera.
- Hainbat gaitasun sozial.
- Desberdinekiko begirunea.
- Irizpide kritikoz jokatzeko ahalmena.
- Berdintasunezko harremanak ezartzea.

JARDUERAK

1. GAIAREN AURKEZPENA ETA MOTIBAZIOA: Agurrak

Materialak: arbela, folioak, boligrafoa.

Denbora: bi saio

Taldekatzea: talde handia, binaka, banaka.

Lehenengo Saioa: Nola agurtzen dugu elkar?

Garapena:

1. Gaia aurkezteko irakasleak agurrei buruz hitz egingo du: Gure gizartean toki batean sartu edo ateratzean, edota jendea (lagunak, ezagunak...) karrikan topatzean agurtu egiten ditugu. Askotan kortesiagatik egiten dugu, batzuetan sentimenduz eta bestetan halabeharrez. Garbi dago ez ditugula pertsona guztiak berdin agurtzen.

2. Ondoren, zenbat agur mota ezagutzen duten galdetuko dugu. Horretarako ikasleei folio batean koadro bat egiteko eskatuko zaie non zutabe batean ezagutzen dituzten agur motak jarriko dituzten, ondokoan noiz egiten diren eta hirugarren zutabean ea haiek egiten duten ala ez. Adibidea guk jarriko dugu:

Agur mota	Noiz egiten da	Guk egiten dugu?
Eskua eman	Norbait aurkezten dizutenean...	BAI / EZ
...	...	

3. Emaizak komunean jarriko dira. Ondorio giza gure kulturaren eta gure artean nola agurtzen dugun elkar aterako dugu.

Bigarren Saioa: Munduko agurrak

Garapena:

1. Irakasleak saioa hasiko du ea kultura guztietan berdin agurtzen dugun elkar galdetuz.

2. Eranskin I banatuko dugu eta, binaka jarrita, taula osatzeko eskatuko dugu. Esaldietan esandakoa ea egia edo gezurra den erantzun beharko dute.

3. Ondoren eranskin II banatu edo irakurriko dugu.

4. Ondorioak aterako dira.

- Denok berdin agurtzen dugu elkar?

- Zer da gehien harritu gaituena?

- Gure herriko kaleetan horrelako agurrik ikusiko bagenitu zer pentsatuko genuke?

- Ezagutzen dugu lurralde horietako norbait? Horrela agurtzen dute elkar?

- Munduan barna, nonbait, elkar agurtzeko erabiltzen duten bestelako modurik ezagutzen al duzu?

(Interesik balego beste saio bat erabil daiteke munduko beste agur motak topatzeko, horretarako Internet eta eskolako edo herriko liburutegia erabilgarriak izan daitezke.)

5. Bukatzeko ikasleei ea haiek nola agurtzen duten galdetuko zaie

Ama(k)	
Aita(k)	
Anaiak/nebak	
Ahizpak/arrebak	
Osaba-izebak	
Lagunak	
Helduak...	

2. MUSUAK

Materialak: arbela, folioak, boligrafoa.

Denbora: Lau saio

Taldekatzea: talde handia, talde txikiak, binaka, banaka.

Lehenengo saioa: Musuak

Garapena:

1. Saioa hasteko irakasleak ondoko galdera egingo du: **"Osasungarria al da musu ematea?"**. Erantzunak taldeka edo ideia zaparrada teknikarekin jaso daitezke, baina erantzunak arrazoitua izan behar dira. Erantzunak komunean jarri ondoren irakasleak ondoko testua irakurri edo banatuko du:

"Zientziaren arabera, musu ematea guztiz osasungarria da. Aurpegian ditugun 30 muskulu trebatzen ditugu eta maiz musu emanda autoestimua eta zirkulazioa hobetzen dira. AEBetan egindako hainbat ikerketak erakusten dutenez, musu emateko ohitura duten pertsonak urte gehiago bizi dira eta gaitz gutxiago izaten dituzte. Izan ere, eraginkortasun analgesikoa duten hormona-jariakinak mobilizatzeko gai dira musuak, baita organismoaren defentsak indartzeko ere. "Morreo" izenez ezagutzen ditugun musuek bihotz-taupadek areagotzen dituzte eta odolaren tentsioa igotzeko gaitasuna dute."

2. Guk emandako erantzunak antzekoak al dira?

Bigarren saioa: Musuak eta Abestiak

Garapena:

1. Irakasleak ikasleei musuei buruz hitz egiten duten abestiak ekartzeko eskatuko du, ahal bada letra ere bai.
2. Abesti bat aukeratuko da eta landuko da
 - Zertaz hitz egiten du abestiak?
 - Zein sentimendu transmititzen du?
 - Sortzen den egoera arrunta al da?
 - Identifikatuta sentitu al gaitzke abestiarekin?. Zergatik?
3. Bukatzeko talde txikitara ondorengo galderak erantzungo dituzte:
 - Noiz ematen dio neska batek mutil bati musu bat?, eta beste neska bati?
 - Noiz ematen dio mutil batek neska bati musu bat?, eta beste mutil bati?
4. Erantzunak alderatu eta ondorioak aterako dira

Hirugarren saioa: Musu Ospetsuak

Garapena:

1. Irakasleak historian zehar musu ospetsuak egon direla adieraziko du. Ondoren adibide batzuk jarriko ditu eta ikasleei ea ezagutzen dituzten galdetuko die.
2. Irakasleak Hotel de Ville-ko informazioa irakurriko du eta beste musuen informazioa bilatzeko eskatuko du. Horretarako Internet edo liburutegia erabil daiteke.
3. Jarraitzeko ea musu ospetsu gehiago ezagutzen duten galdetuko du eta hala bada informazioa ere konpartituko da.
4. Ondoren musuei buruzko eztabaida bultzatuko da, aldizkarietatik, liburuetatik, iturri desberdinetatik pertsona desberdinak musukatzen lortuko dira...



Gustav Klimt-en musua



Hotel de Ville-ko musua



Judas-en musua

"1950. Robert Doisneau argazkilaria taberna bateko terraza batean zegoen bere Rolleiflex argazki-makinaz. Klean zebilen jendea arretaz behatzen ziharduenean jendetzaren artean bikote bat ikusi zuen, ingurukoaz arduragabe, sutuki musukatuz aurrera egiten zuena. Arrapaladan, argazkilariak argazki-makina hartu eta uneko argazki hau burutu zuen, Hotel de Ville-ko musu bezala ezaguna egin zena eta 410.000 kopiarekin Historian zehar gehien saldutako argazkia izatera iritsi zen. Istorioa, honela kontatuta, benetan ederra da, testuingurua, nola ez bada, Paris, unearen xarma, gazteen grina, arduragabetasun susmoa hiriaren egunerokotasunaren nahastuta... dena biribilegia. 1992an, bikote batek argazkiko pertsonak zirela eman zuen jakitera. Doisneauk epaile baten aurrean egia esan behar izan zuen, iruzurti haiek irudi-eskubideak zirela- eta erreklamatzeko zituzten 100.000 dolarrak eraman ez zituzten: Life aldizkariak maitaleak Parisen gaitzat zuen erreportajea agindu zion. Eta Doisneau bera izan zen, "Musuak" izenpean, argazki serie bat egin zuena. "Ezustean" antzemandako bikotea argazkirako para zezaten eskatutako antzezle ezezagunak baino ez ziren (hori bai, senar-emaztegaiak). Istorioak 42 urtez ezkutuan iraun zuen, eta 13 urte beranduago, 2005ean, argazkiko emakumeak, Françoise Bornatek, argazkilariak sinatutako bere argazkiaren kopia saldu zuen, batere txantxetako ez den kopuruaren truke, 200.000 dolar."

Bukatzeko ikasleei musuen argazkilari bihurtzeko proposatuko zaie. Horretarako hainbat egunetako tarte hartuko da. Argazkiak banaka, binaka zein taldeka aurkeztu ahalko dituzte. Nori eman musua norberaren esku geldituko da. Baldintzak hauexek izango dira:

- Musuak ezin dira inposatu, beti-beti boluntarioak izan behar dira
- Argazkiak errespetuz egin behar dira inor iraindu gabe
- Argazkiak gelan jarriko dira
- Izenburuak ere jarriko dira

4. Erakusketa egin ondoren egileek argazkiak azalduko dituzte
- Argazkiak mezurik transmititzen al du?
 - Erraza izan al da?
 - Argazkiek gelan landutakoarekin loturarik al dute?

Laugarren saioa: musuak eta ipuinak

Garapena:

1. Ikasleei txikitako ipuinak gogoratzeko eskatuko zaie eta zerrenda bat osatuko dugu.
2. Ipuin horietatik zein ipuinetan dira protagonista musuak?
3. Irakasleak eztabaida bultzatuko du:
 - Zer gertatzen da ipuin horietan musua ematen denean?
 - Nork ematen du musua?, zertarako?, zer lortzen du?
 - Egokia iruditzen al zaizu musuaren esanahia edo egiten den erabilpena?
4. Bukatzeko ondorengo bideoa ikusiko dugu eta eztabaida bultzatuko dugu www.aldarte.org/cas/site/multimedia-ver.asp?id=4
 - Zer iruditu zaizue bideoa?, zer ipuin klasikorekin lotuta dago?
 - Bururatzen al zaizu aipatutako ipuinaren bestelako bukaerarik?

3. BIKOTEAK

Materialak: arbela, folioak, boligrafoa.

Denbora: hiru saio

Taldekatzea: talde handia, binaka, banaka.

Lehenengo saioa: Ipuin eta telebistako saioetako bikoteak

Garapena:

1. Irakasleak aurreko saioetan egindako ipuinen zerrenda berreskuratuko du eta ea zer-nolako bikote mota agertzen diren galdetuko du:

Neska eta mutila	bai / ez
Neska eta neska	bai / ez
Mutila eta mutila	bai / ez
2. Ondoren, ea telebistako saioetan sexu bereko bikoteak ikusten diren galdetuko du, eta ezagutzen dituztenak apuntatuko dituzte.
3. Bukatzeko ikasleei ea non ikusten duten bikote mota hauek galdetuko zaie: (paperean/arbelean idatzi eta gezien bidez lotzeko eskatu ikasleei)

Neska eta mutila	kalean
	telebistan
Mutila eta mutila	zinean
	institutuan
Neska eta neska	ipuinetan

4. Ondorioak aterako dira:
 - Hiru bikote mota berdin ikusten dira toki guztietan? Zergatik ote?
 - Zer uste duzu?

Bigarren saioa: Pelikulak eta esanahiak

Garapena:

1. Saioa ondoko helbidean agertzen den bideoarekin hasiko dugu www.aldarte.org/cas/site/multimedia-ver.asp?id=26

2. Ikasleei bere hitzekin ikusitakoa azaltzeko eskatuko zaie eta eztabaida bultzatuko da.

- Zein da filmaren mezua?
- Zer sentitu duzue bideoa ikustean?
- Taldekideen erantzuna gustatu al zaizue?
- Horrelako egoerarik ezagutzen al duzue?
- Egoera ezezaguna bada, zuen ustez zer gertatuko litzateke institutuko pasabideetan bi mutil edo bi neska eskutik helduta joango balira?
- Berdintasunaren alde altxatuko zinatekete?

3. Eztabaidarekin jarraitzeko, irakasleak "bullying" gaia mahaigaineratuko du filmaren bukaera komentatuz:

*"Don't stand for homophobic bullying
Stand up for your Lesbian, Gay, Bisexual and Transgender friends"*

Zuen ustez, ikusten badugu neska edo mutil bat jazarpena sufritzen ari dela bere sexu-orientazioagatik, nola jokatu beharko genuke?

- | | |
|---|--------|
| - Ez ikusiarena egin beharko genuke | bai/ez |
| - Tutoreari esan beharko genioke | bai/ez |
| - Sufritzen duenari gure laguntza eskaini beharko genioke | bai/ez |
| - Gurasoekin hitz egingo genuke haiek zerbait egiteko | bai/ez |
| - Besterik?..... | bai/ez |

Hirugarren saioa: Hitzen esanahiak eta leloak

Garapena:

1. Irakasleak talde txikitan banatuko du ikastaldea eta haien hitzekin ondoko hitzen definizioa egiteko eskatuko die.

bisexuala – gay/homosexuala – heterosexuala – lesbiana - transexuala

Ondoren hiztegiko definizioekin alderatuko dituzte.

2. Eztabaida bultzatuko dugu

- Ba al dago diskriminazioa jasaten duen talderen bat?
- Ba al dakigu zer aldarrikatzen duten gay, lesbiana eta transexualen taldeek?

3. Bukatzeko Venezuelan egindako bideo bat ikusiko dugu,

<http://www.youtube.com/watch?v=oGSVu7CqozI>

4. Jarraian LGTB taldeek egindako kanpaina desberdinen informazioa bilatzeko eskatuko zaie ikasleei: kartelak, leloak, material didaktikoa..

5. Taldeka kanpaina berriak diseinatzea proposatuko dugu, gero ikasgelan edo pasabidean jartzeko.

Baliabideak:

www.gehitu.net www.aldarte.org www.ehgam.org xega.org

EBALUAZIOA

Hasierako jarduerak hasierako ebaluaziorako erabiliko ditugu. Modu horretan gure ikasleen ezagutzaz onartuko gara eta indarra non jarri jakingo dugu.

Unitatea lantzen den bitartean etengabeko ebaluazioa egingo da, besteak beste, behean aipatzen diren teknika eta tresnak erabiliz.

Unitatea bukatzean berriz ikasleen lana baloratuko da markatutako irizpideak jarraituz. Ikasleek ere beraien autoebaluazioa eta unitatearen ebaluazioa egin dezakete.

Bestalde, jarduera bakoitzaren bukaeran jarduera beraren ebaluazioa egingo dugu, zerk funtzionatu duen, zerk ez, nola antolatu dugun gela, denbora, ikasleak motibatuta egon diren... hau guztia behar izanez gero, hurrengo jarduerarako praktika egokitu eta unitatearen bukaeran ezarritako helburuak bete ahal izateko.

Ebaluazio irizpideak:

- Ea gaiaren garrantziaz jabetzen den
- Ea erabiltzen dituen teknologiak ezagutu eta modu egokian erabiltzen dituen
- Ea irudi audiobisualak behatu eta aztertzen dituen transmititzen duen mezuaz konturatuz.
- Ea jendartean dagoen diskriminazioaz jabetzen den.
- Ea talde lanetan errespetuz eta modu enpatikoaz lana egiten duen.

Ebaluaziorako teknika: Behaketa.

Ebaluaziorako tresnak:

- Irakaslearen egunerokoa
- Ikasle bakoitzaren historiala. Bertan unitatearen garapenean zehar bakoitzaren lanaren balorazioa eta ekarpenak jasoko dira
- Egindako lanak.

Ikasleen ebaluazioa unitatearekiko: Elkarrizketarako gidoia:

- Zer gustatu zeien gutxien eta gehien eta zergatik.
- Zer ikasi duten.
- Zerk harritu dituen gehien.
- Zer aldatuko luketen

ERANSKIN I

EGIA

GEZURRA

Europa osoan ematen ditugu bi musu aurpegian elkar agurtzeko

Errusian oso ohitura zaharra da gizonek beste gizonei musua ematea ahoan.

Britainiarrek musu samurrak ematen dituzte agurtzeko.

Eskimallek musu gisa bekokia igurzten diote elkarri.

Ozeanian neskek ez diote inoiz ahoan musurik ematen beren maitaleei.

Argentinan ohikoa da gizonek elkarri bi musu ematea.

Afrikako hainbat herritako tribuek zakila astintzen diote elkarri agurtzeko. Emakumeek, berriz, bularrak estutu elkarri.

Txinan eta Japonian, elkarri eskua ematen diotenean, beste eskuak sorbalda ukitzen du.

Indian , bizkarra ematen diote elkarri agurtzeko

Musulmanen munduan, gizonek eta emakumeek ez dute inoiz elkar ukitzen, ez badira senideak; kasu horretan, eskua ematen diote elkarri eta besarkada bat.



Munduko agurrak (http://funversion.universia.es/curiosidades/sorprendente/saludos_del_mundo.jsp)

Musua, maitasun adierazpena ala agur arrunta... honen erantzuna ematen den tokiaren arabera izan da, esanahi jakin bat edo beste izan da baitu, bai eta toki horietan elkar agurtzeko dituzten moduak ere. Ohitura sorta hau gure planetaren aniztasunaren isla da.

Ohituren hasieretatik agurra musuarekin erlazionaturik izan da munduko toki askotan, baina herrialde guztietan ez da antzeko egoerarik bizitzen. Adibidez, **European** ohikoena masailetan bi musu ematea da pertsonak elkar ezagutzen dutenean, edota eskua ematea elkar ezagutu ezean; hala ere, tokiaren arabera ere musu kopurua aldatzen da.

Gure herrian ohikoa da bi musu ematea beste pertsona ezaguna denean, eta eskua ematea ezaguna ez denean, baina azken hau gizonen artean. Gizon eta emakumeen artean beti bi musu ematearen ohitura zabaldu da, senideen artean musu bakarria ematen bada ere. Musu honek bestelako zentzua du, ukitu leuna baita masailean.

Italian ere bi musu ematen dituzte, baina alderantzizko aldetik hasita, eta kontuan hartu gabe beste pertsonaren sexua, beti ere ezagunak badira, kasu horretan bostekoa ematen baitiote elkarri.

Belgikan, Alemanian, Suitzan eta Holandan ohikoa da hiru musu ematea, eskuin aldetik hasita; hala ere, Holandan ahoan musu txiki bat ematearen ohitura ere bada gizon eta emakume ezagunen artean.

Errusian hiru musu ematearen ohitura ezaguna da, eta hainbat zonaldeetan sei ere ematen dituzte. Ahoan musua ematea ere ohitura da, oso antzinakoa, eta horren isla Sobiet Batasuneko agintariak eta Ekialdeko Alemaniako agintariak elkarri emandako musua (Breznev eta Honecker-ek elkarri emandako musua oso famatua da)

Britainiarrek ez dute horren gustuko honelako kontakturik egitea, eta tradizionala den bostekoa ematea nahiago dute.

European, agurrik ezagunenetako bat **musu-eskimala** da, elkarri sudurra igurtziz egiten dena. Horren arrazoia da euren hizkeran " musu ematea"-k "usaina" esan nahi duela. Era berean, haien hizkeran hainbat txuri mota bereizten dute.

Latinoamerikan, Estatu Espainoleko herriekin izan duten harremanaren ondorioz, ohiturak oso antzekoak dira. Arruntena da musu bakarria ematea masailean elkarren ezagunak direnean edota senideak. Hala ere, ohikoa da bostekoa ematea, batez ere gizonen artean, Argentinan izan ezik, herrialde horretan gizonak elkarri bi musu emateko ohitura hedatua baitago.

Bestelako ohitura bereziak ere badira, esaterako, **Malawiko iparraldean** bada Ngá herria, eta hor duten berezitasuna, honakoa: zakila elkarri astinduz agurtzen dute elkar, bi astinaldi ematen diote elkarri, eta senideen kasuan hiru ere ematen dituzte. Gehiago emanez gero, homofobikoak diren aipuak egiten hasten dira. Ngá herriko emakumeek ere bularrak estutzen dizkiote elkarri. Gizon eta emakumeen arteko agurretan ere aurrekoak egiten dira , hau da, astintzea eta estutze kopurua berbera da, baina lau kopurura ailegatuz gero, elkarrekiko interesa agertzen dutela esan nahi du. Ohitura honen arrazoia da hainbat tributan antzinako sinesmen bat mantentzen dutela, eta horren arabera musu ematea arriskutsua da, arimak ahotik ihes egiteko arriskua baitago.

Beste muturreko ohiturak ere badira Asia aldeko zenbait herrialdeetan. **Txinan eta Japonian**, ez dute inola ere elkar ukitzen, burua makurtzen dute elkar agurtzeko, eta elkarri dioten errespetu mailaren arabera gehiago makurtzen dute burua.

Musu sutuak lepoan edo eskuan ematen dituzte, behin ere ezpainetan, horien tradizioaren arabera musu ematea energia espiritualak emateko modu bat da.

Indian, agurtzeko momentuan, arruntena da bular aldera eramatea eskuak elkarturik eta "namaste" esatea. Beste hainbat kultura indoasiatikoetan elkarri usaintzen diote.

Bukatzeko, **musulmanen munduan** ohikoena izaten da elkarri eskua luzatzea eta "salan aleikum" esatea, bai gizon bai emakumeen artean. Hala ere, gizonak eta emakumeak ez dute inoiz elkar ukitzen, senideak ez badira, kasu horretan eskua emateaz gain besarkada bat ematen diote elkarri. Antzekoa ere izaten da zaplada txiki bat ematea sorbaldan, eta ondoren hiru musu , baina aurpegia hurbilduz soilik.

Gure gizartean ematen ari den aurrerapen soziala ikusita, gure poza adierazi nahi dugu, baina ezin dugu ahaztu Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) homosexualitatea eritasun mentalen zerrendatik kendu zuenetik, 1990eko maiatzaren 17tik, 22 urte baino ez direla pasatu. Hala ere, errealitatea ez da gehiegi aldatu nazioartean: munduko 7 herrialdetan homosexualek, bisexualek eta transexualek heriotza zigorra jasaten dute, eta herrialde gehienetan haiekiko/gurekiko diskriminazioak ez ditu errespetatzen nazioarteko itunak, edo nabarmen urratzen ditu.

Maiatzaren 17an Homofobia, transfobia eta bifobiaren aurkako nazioarteko eguna da, eta STEE-EILAS sindikatuak modu aktiboan parte hartu nahi izan du egun horretako aldarrikapenetan, inklusiboa den eskolan sinisten baitugu, diskriminaziorik gabeko eskolan.